

Bizkaiko Foru Aldundiaren ____/2018 FORU DEKRETUA, uztailaren 3koa. Honen bitartez, ekainaren 28ko Bizkaiko Foru Aldundiaren 118/2016 Foru Dekretuak onesten duen Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroaren Erregelamendua aldatzen da.

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia ____/2018, de 3 de julio, por el que se modifica el Reglamento del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia aprobado mediante Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 118/2016, de 28 de junio.

Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 28ko 118/2016 Foru Dekretuaren bidez Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastratoaren Erregelamendua onetsi zen. Bere helburua Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroaren maiatzaren 18ko 3/2016 Foru Arauak erreglamendu bidez garatzeko utzitako arloak arautzea zen.

Mediante el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 118/2016, de 28 de junio, se aprobó el Reglamento del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia con objeto de dar respuesta a las remisiones al desarrollo reglamentario contenidas en la Norma Foral 3/2016, de 18 de mayo, del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia.

Erregelamendua onartzearekin batera, landa- eta hiri-ondasun higiezinaren balio-txostenak onetsi ziren, 40 urte baino gehiago igaro ondoren. Prozesu horretan, ezaugarri bereziko ondasun higiezinak (EBOHak) kudeatzeko eta balioztatzeke araudi bat onetsi baino ez zen falta.

En paralelo a la aprobación de este Reglamento y después de más de 40 años, se aprobaron las Ponencias de valores para los bienes inmuebles de naturaleza urbana y rústica. De este proceso quedaba pendiente la aprobación de una normativa que regulase la gestión y valoración de los bienes inmuebles de características especiales (BICES).

Ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren balio-txostenak onesteko, beharrezkotzat jotzen da Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroaren Erregelamendua aldatzea, Bizkaiko katastroaren araudian definitu gabe

Con el fin de aprobar las ponencias de valores de los BICES se considera necesaria la modificación del Reglamento del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia al objeto de regular todos los



dauden alderdi guztiak arautzeko.

aspectos normativos pendientes de definir en la normativa del catastro de Bizkaia.

Horregatik, foru-dekretu honen bidez, aldatu egiten da Higiezinaren Foru Katastroaren Erregelamendua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko 3/2016 Foru Arauan ezarritako katastroaren inguruko kontzeptuak garatu edo zehazteko, EBOHei dagozkien alderdi bereziak arau bidez definitzeko, bai eta Bizkaiko Lurralde Historikoan dauden EBOHei aplikatu behar zaizkien katastroko-irizpideak zehazteko ere.

Por ello mediante este Decreto Foral se modifica el Reglamento del Catastro Inmobiliario Foral al objeto de desarrollar o detallar los conceptos catastrales marcados en la Norma Foral 3/2016 del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia de los Bienes inmuebles de características especiales BICEs, definir normativamente los aspectos singulares que corresponden a los BICEs así como los criterios catastrales a aplicar a los BICEs radicados en el Territorio Histórico de Bizkaia.

Adierazi behar da foru dekretu honen izapidetzea lege eta dekretu hauetan xedatutakoaren arabera egin dela: Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari buruzkoa.

Se debe señalar que la tramitación de este Decreto Foral se ha llevado a cabo de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Comunidad Autónoma del País Vasco y en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, sobre la realización de la evaluación previa de impacto en función del género.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuak jasotzen dituen izapide guztiak bete dira.

Asimismo se han observado los trámites previstos en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter



general en la Diputación Foral de Bizkaia.

Azaldutakoa dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2018ko uztailaren 3ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

Por lo expuesto, a propuesta del diputado foral de Hacienda y Finanzas y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral, en reunión de 3 de julio de 2018,

XEDATZEN DUT:

DISPONGO:

Artikulu bakarra. *Ekainaren 28ko Bizkaiko Foru Aldundiaren 118/2016 Foru Dekretuak onesten duen Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroaren Erregelamendua aldatzea*

Artículo Único. *Modificación del Reglamento del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia aprobado mediante Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 118/2016, de 28 de junio.*

Aldaketa hauek egiten dira ekainaren 28ko Bizkaiko Foru Aldundiaren 118/2016 Foru Dekretuak onesten duen Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroaren Erregelamenduan:

Se introducen las siguientes modificaciones en el Reglamento del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia aprobado mediante Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 118/2016, de 18 de junio:

Bat. I. kapitulu bat gehitzen zaio I. tituluari, 2., 3. eta 4. artikulua barne hartzen dituena. Hona hemen haren izenburua:

Uno. Se introduce un nuevo Captitulo I dentro del Título I comprensivo de los artículos 2, 3 y 4, con el siguiente Título:

«I. KAPITULUA

“CAPITULO I

KATASTROKO ERREFERENTZIA ETA ONDASUN HIGIEZINEN IDENTIFIKATZAILEA”

REFERENCIA CATASTRAL E IDENTIFICADOR DE LOS BIENES INMUEBLES”



Bat. Berridatzi egiten da 2. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«2. artikulua. Katastroko erreferentzia.

Katastro-elementuak identifikatzeko katastroko erreferentzia bakar eta iraunkorra —Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko Foru Arauaren 6. artikuluan aipatzen dena— hau izango da:

- bederatzi posizioko erreferentzia bat, hiri-ondasun higiezinaren eta landa-izaerako eraikuntzen kasuan,
- landa-izaerako orube eta partzelen kasuan, udalerraren, poligonoaren eta partzelaren kodeez osatutako erreferentzia bat, eta
- eta hamaika posizioko erreferentzia bakar bat, ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren kasuan».

Hiru. Berridatzi egiten da 4 artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«4. artikulua. Ondasun higiezinaren identifikatzailea

Hiri-izaerako ondasun higiezinaren eta landa-izaerako eraikuntzen kasuan, haien identifikazioa udalerrri, poligono, etxadi, partzela eta lotura-gakoaren identifikazio-kodeez eratutako erreferentzia bat izango

Dos. Se da nueva redacción al artículo 2, que queda redactado en los siguientes términos:

“Artículo 2. Referencia Catastral.

La referencia catastral única y permanente identificadora de los elementos catastrales a que se refiere el artículo 6 de la Norma Foral del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico Bizkaia, que será asignada por la Diputación Foral de Bizkaia, consistirá en:

- una referencia de nueve posiciones en el caso de los bienes inmuebles de naturaleza urbana y de las construcciones de naturaleza rústica.
- una referencia formada por los códigos de municipio, polígono y parcela en el caso de los suelos o parcelas de naturaleza rústica.
- una única referencia de once posiciones en el caso de los bienes inmuebles de características especiales.

Tres. Se da nueva redacción al artículo 4, que queda redactado en los siguientes términos:

“Artículo 4. Identificador de Bienes Inmuebles

La identificación de los bienes inmuebles de naturaleza urbana y de las construcciones de naturaleza rústica vendrá determinada por una referencia formada por los códigos identificativos del municipio, polígono,



da.

Landa-izaerako orube eta partzelen kasuan, ondasun higiezinaren identifikazioa bat etorriko da katastroko erreferentziarekin.

Ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren kasuan, berriz, ondasun higiezinaren identifikatzailea erregelamendu honetako 5 bis artikuluan 5. zenbakian jasotako izango da.

Lotura-gakoan, ondasun higiezin bakoitza osatzen duten katastro-elementuak bilduko dira, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko Foru Arauaren 5. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta.»

Lau. II. kapitulu bat gehitzen zaio I. tituluari, 5. artikulua eta 5 bis artikulua berri bat barne hartzen dituen. Hona hemen haren izenburua:

«II. KAPITULUA
KATASTRO-ONDORIOETARAKO,
ONDASUN JAKIN BATZUK HIGIEZIN GISA
KALIFIKATZEKO BEREZITASUNAK

5 bis artikulua. Ezaugarri bereziko ondasun higiezinak.

1. Katastroan sartzeko, ondasun higiezin bakartzat hartuko da Bizkaiko Lurralde

manzana, parcela y clave de asociación.

En los suelos y parcelas de naturaleza rústica, la identificación del bien inmueble se corresponderá con la referencia catastral.

En los bienes inmuebles de características especiales, el identificador del bien inmueble será el previsto en el apartado 5 del artículo 5 bis de este Reglamento.

La clave de asociación agrupará el conjunto de elementos catastrales que constituyen cada bien inmueble de conformidad con lo dispuesto en el artículo 5 de la Norma Foral del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia. “

Cuatro. Se introduce un nuevo Capítulo II dentro del Título I, comprensivo del artículo 5 y un nuevo artículo 5 bis, con el siguiente contenido:

“CAPITULO II
PARTICULARIDADES EN EL
TRATAMIENTO DE DETERMINADOS
BIENES COMO INMUEBLES A EFECTOS
CATASTRALES

Artículo 5 bis. Bienes inmuebles de características especiales.

1. A efectos de su incorporación al Catastro, el conjunto complejo que, de acuerdo con lo



Historikoko Higiezin Foru Katastroari buruzko Foru Arauaren 9. artikuluan ezarritakoarekin bat ezaugarri bereziko ondasun higiezin gisa kalifikatu daitekeen multzo konplexua; beraz, katastroko erreferentzia bakarra izango du, kontuan hartu gabe esparru edo partzela batek edo gehiagok osatzen duen, eta haren lurralde-konfigurazioa gorabehera (udal-mugarte batean baino gehiagotan badago).

Ez dira halako ondasuntzat hartuko hondakin-biltegi isolatuak, ez eta eraikuntza nagusia dagoen partzeletatik kanpoko kanalak edo garraio-hodiak eta eroanbideak ere, salbu eta ondorengo zenbakian xedatutakoa.

2. Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezin Foru Katastroari buruzko maiatzaren 18ko Foru Arauaren 9. artikuluekin bat, beherago zehaztutakoak ezaugarri bereziko ondasun higiezintzat jotzen dira, erabilera bereziko multzo konplexua eratzeagatik eta artikuluko horren 1. zenbakiko gainerako baldintzak betetzeagatik. Hona hemen ondasunok:

A taldea. Honako ondasun higiezin hauek osatzen dute taldea:

A-1. Energia elektrikoa ekoizti, biltegitatu eta banatzeko direnak. Baina energia hidroelektrikoa ekoizteko ondasun

previsto en el artículo 9 de la Norma Foral del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia, sea susceptible de calificarse como bien inmueble de características especiales se entenderá como un único bien inmueble, contando por tanto con una única referencia catastral, con independencia de que pueda estar integrado por uno o varios recintos o parcelas o de su configuración territorial, en caso de estar situado en distintos términos municipales.

No formarán parte de dichos inmuebles los depósitos de residuos aislados, ni los canales o tuberías de transporte u otras conducciones que se sitúen fuera de las parcelas en las que se localice la construcción principal, salvo lo dispuesto en el apartado siguiente.

2. Conforme a lo dispuesto en el artículo 9 de la Norma Foral 3/2016, de 18 de mayo, se consideran bienes inmuebles de características especiales, por constituir un conjunto complejo de uso especializado y reunir las demás condiciones establecidas en el apartado 1 del citado artículo, entre otros, los siguientes inmuebles:

Grupo A. Integran este grupo los siguientes bienes inmuebles:

A-1. Los destinados a la producción, almacenamiento y distribución de energía eléctrica. No obstante, los bienes inmuebles



higiezinak kasu batean baino ez dira sartuko talde honetan: atal honetako B taldean ez daudenean eta 10 MW-ko potentzia instalatu gáinditzen dutenean. Azken kasu horretan, ondasunaren parte izango dira partzeletatik kanpo dauden kanal, garraio-hodi eta eroanbideak ere —urtegia eta presa, barne—, baldin eta energia hidroelektrikoa lortu edo ekoizteko jarduera garatzeko beharrezkoak badira.

Beste zentral batetik datorren emaria berrerabiltzen duten eta eroanbideen bidez lotuta dauden edo urtegi bereko ura erabiltzen duten zentral hidroelektrikoak ezaugarri bereziko ondasun berekoak direla jotzen da.

A-2. Gasa ekoitzi, biltegiatu eta banatzeko direnak. Banaketaren barruan, jarduera hauek sartzen dira: gasa aztarnategitik ateratzea eta birgasifiktzea, edo elementu likidoa elementu gaseoso bihurtzea eta likidotzea, betiere jardueron bidez azkeneko banaketa egiten bazaie hirugarren batzuei kanalizazio bidez.

A.3 Petrolioaren produktu finduak ekoitzi, biltegiatu eta banatzeko direnak.

B taldea. Talde honetan sartzen dira azaleko urtegiak —ohea edo hondoa, barne—, presa

destinados a la producción de energía hidroeléctrica sólo se integrarán en este grupo cuando, no estando incluidos en el Grupo B de este apartado, superen los 10 MW de potencia instalada. En este último supuesto, también formarán parte del inmueble los canales, tuberías de transporte u otras conducciones que se sitúen fuera de las parcelas, incluido el embalse o azud, y que sean necesarias para el desarrollo de la actividad de obtención o producción de energía hidroeléctrica.

Las centrales hidroeléctricas que reutilizan el caudal proveniente de otra central y están ligadas por conducciones o aprovechan el agua procedente del mismo embalse se consideran parte de un mismo bien inmueble de características especiales.

A-2. Los destinados a la producción, almacenamiento y distribución de gas, entendiendo incluida en ésta, tanto la extracción del yacimiento como la regasificación, o actividad de transformación del elemento líquido en gaseoso, así como la licuefacción, siempre que éstas actividades se destinen principalmente al suministro final a terceros por canalización.

A.3 Los destinados a la producción, almacenamiento y distribución de refinado de petróleo y derivados.

Grupo B. Integran este grupo los embalses superficiales, incluido su lecho o fondo, la



handiak, energia hidroelektrikoa ekoizteko zentralak, ur-jauziak eta ekoizpen-prozesuarekin lotutako gainerako eraikuntzak; eta partzeletatik kanpo dauden kanal, garraio-hodi eta eroanbideak, baldin eta energia hidroelektrikoa lortu edo ekoizteko jarduera garatzeko beharrezkoak badira eta presa handiek berezko duten dimentsioa edo ura bildu eta husteko gaitasuna badute araudi sektorialean xedatutakoarekin bat. Salbuetsita geratzen dira, betiere, ureztapenerako soilik direnak.

grandes presas, la central de producción de energía hidroeléctrica, el salto de agua y demás construcciones vinculadas al proceso de producción, así como los canales, tuberías de transporte u otras conducciones que se sitúen fuera de las parcelas y que sean necesarias para el desarrollo de la actividad de obtención o producción de energía hidroeléctrica, siempre que tengan las dimensiones o capacidad de embalse o de desagüe propios de las grandes presas conforme a lo dispuesto en la normativa sectorial. En todo caso, se exceptúan los destinados exclusivamente al riego.

Instalazio bat presa handitzat jotzeko, haren dimentsioei begiratu behar zaie; gutxienez 15 metro garai izan behar du; edo, 10 eta 15 metro bitarteko garaiera izanik, hektometro kubiko batetik gorako ur-biltzeko ahalmena izan behar du. Presaren garaiera zimenduen maila baxuenaren eta egitura erresistentearen maila altuenaren arteko sestra-diferentzia da, kontuan hartu gabe eskuareak, iragazgaizte-pantailak, pitzaduren betegarriak edo antzeko elementuak.

Se considera gran presa, en función de sus dimensiones, aquella cuya altura es superior a 15 metros y la que, teniendo una altura comprendida entre 10 y 15 metros, tenga una capacidad de embalse superior a un hectómetro cúbico. Se entiende por altura de la presa la diferencia de cota entre el punto más bajo de la cimentación y el punto más alto de la estructura resistente, sin tener en cuenta los rastrillos, pantallas de impermeabilización, rellenos de grietas u otros elementos semejantes.

C taldea. Autobideak, errepideak eta tunelak sartzen dira talde honetan, betiere haietan baimenduta badago ordainsaria ezartzea legeria sektorialarekin bat.

Grupo C. Integran este grupo las autopistas, carreteras y túneles cuando, en cualquiera de ellos, se encuentre autorizado el establecimiento de peaje de acuerdo con la legislación sectorial.

D taldea Honako ondasun higiezin hauek

Grupo D. Integran este grupo los siguientes



osatzen dute taldea:

D1. Aireportuak; legeria sektorialean hala definitutakoak hartuko dira halakotzat.

D2. Merkataritzako portuak.

bienes inmuebles:

D1. Los aeropuertos, entendiéndose como tales los así definidos por la legislación sectorial.

D2. Los puertos comerciales.

3. Halaber, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezin Foru Katastroari buruzko Foru Arauaren 9.2.e artikularekin bat, ezaugarri bereziko ondasun higiezin izango da beste edozein ondasun higiezin multzo, baldin eta haren ezaugarri bereziengatik modu kolektiboan balioztatu ezin den eta/edo ezaugarri arruntekotzat jo ezin den multzo espezializatuaosatzen badu.

4. Aurreko zenbakien arabera ezaugarri bereziko ondasun gisa sailkatu behar diren ondasunak partez Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo daudenean, ondasunok lurralde historiko horretan okupatzen duten azalera besterik ez da sartuko katastroko datu-basean.

5. Ezaugarri bereziko ondasun higiezin kasuan, 4. artikuluan aipatzen den identifikatzaileak erreferentzia hau izango du:

3. Asimismo, de acuerdo con el artículo 9.2.e de la Norma Foral del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia, tendrá la consideración de bien inmueble de características especiales cualquier otro conjunto de bienes inmuebles que, atendiendo a sus características específicas, constituya un conjunto especializado que no sea susceptible de valoración colectiva y/o caracterización normalizada.

4. Cuando los bienes que, conforme a los apartados anteriores, deban clasificarse como inmuebles de características especiales, se localicen parcialmente fuera del Territorio Histórico de Bizkaia, se incorporará a la base de datos catastral exclusivamente la superficie que ocupen en el citado territorio.

5. En los bienes inmuebles de características especiales, el identificador del bien inmueble a que se refiere el artículo 4 se corresponderá con la siguiente referencia:



	EBOH MOTA	UDALER. KOD.	UDALER. KOP.	LABURDURA
POSIZIO KOP.	2	3	2	4

	TIPO DE BICE	COD. MUN	Nº MUN	ABREVIATURA
Nº POSICIONES	2	3	2	4

EBOH MOTA

1E	Zentral termikoak
1G	Birgasifikazio-zentralak
1R	Petrolio-findegiak
1H	Produkzio hidroelektrikoa
1P	Parke eolikoak
2P	B taldeko presak
3A	Ordainpeko autobideak
3T	Ordainpeko tunelak
4A	Aireportuak
4P	Merkataritzako portuak



TIPO DE BICE

1E	Centrales Térmicas
1G	Centrales Regasificadoras
1R	Refinerías de Petróleo
1H	Producción Hidroeléctrica
1P	Parques eólicos
2P	Presas grupo B
3A	Autopistas de peaje
3T	Túneles de peaje
4A	Aeropuertos
4P	Puertos comerciales

UDALER. KOD. EBOHak azalera edo luzera handiena duen udalerraren kodea.

COD. MUN. Código de Municipio en el que el BICE tenga mayor superficie o longitud.

UDALER. KOP. EBOHak okupatutako udalerrien kopurua

Nº MUN. Número de Municipios ocupados por el BICE

LABURDURA. EBOHaren izendapenaren laburdura».

ABREVIATURA. Abreviatura de denominación de BICE.”

Bost. Paragrafo bat gehitzen zaio 19. artikuluari, amaieran. Hau da:

Cinco. Se añade un párrafo al final del artículo 19, que queda redactado en los siguientes términos:



«Ezaugarri bereziko ondasun higiezin kasuan, katastro-balioa finkatzeko arau teknikoetan zenbait berezitasun ezarri ahal izango dira, tolerantzia teknikoaren marjinari dagokionez».

“En el caso de los bienes inmuebles de características especiales, las correspondientes Normas Técnicas de Valoración podrán establecer especialidades en lo relativo al margen de tolerancia técnica admisible.”

Sei. 22 bis artikulua gehitzen da 22. artikulua ondoan, honako hau dioena:

Seis. Se añade un nuevo artículo 22 bis a continuación del artículo 22, con el siguiente contenido:

“22. bis artikulua. Udal mugarte batean baino gehiagotan dauden ezaugarri bereziko ondasun higiezin katastro-balioa zehazteko irizpideak.

“Artículo 22 bis. Criterios para determinar el valor catastral de los bienes inmuebles de características especiales situados en distintos términos municipales.

Ezaugarri bereziko ondasun higiezin bat udal mugarte batean baino gehiagotan badago, lurzorua balioa banatu egingo da, udal mugarte bakoitzean duen azaleraren portzentajea kontuan hartuta, eta zati bakoitzari bertan dauden eraikuntzen eta gainerako berezitasunen balioa esleituko zaio».

En el caso de que un mismo bien inmueble de características especiales se encuentre localizado en distintos términos municipales, el valor del suelo se repartirá por el porcentaje de su superficie que figure en cada término municipal asignando a cada parte el valor de las construcciones existentes y demás particularidades en cada una de ellas.”

Azken xedapenetako lehenengoa Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Disposición final primera. *Entrada en vigor*
El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia .



Amaierako bigarren xedapena. *Arauk emateko gaikuntza* Disposición final segunda. *Habilitación normativa*

Ogasun eta Finantzen foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko. Se autoriza al diputado foral de Hacienda y Finanzas a dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y aplicación de lo dispuesto en el presente Decreto Foral.

Bilbon, 2018ko uztailaren 3an.

En Bilbao, a 3 de julio de 2018.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua
El diputado foral de Hacienda y Finanzas

JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia
El Diputado General

UNAI REMENTERIA MAIZ